

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Arte pornografikoa

Lars von Trier zinemagileak Cannesen Hitler uler zezakeelako adierazpen polemikoak egin ondoren iragarritakoa oharkabean pasa da. Bere hurrengo filma zuzenean pornografikoa izatea nahi omen du. Zuzentasun politikotik harago joan izana artearen inplosioarekin berarekin berdintzen saiatzeko zelako irudipena eman zidan. Beharbada apokaliptiko jartzeko unea da eta, Atxaga “haur eta gazte literaturak literatura osoa irentsiko duelakoan” dagoen bezala, zinemagintza osoaren pornografikotzearen aldarrikatzekoa. Haurrentzako liburu ez lotsagarri bat edo Nafarroa Oinez abestiaren letra idaztea bezain desafio zaila iruditzen zait “helduentzako” film baten gidoia egitea. Egia da badagoela bidea urratzen eta beharbada batasun osoaren egun handia aurreratzen ere hasi duenik: Virginie Despentes-en *Baise-moi* edo Michael Winterbottom-en *9 songs*; Hedoi Etxarteri gomendatzera inoiz ausartu ez naizen Bruce Labrucearen *The Raspberry Reich* (“masturbazioa kontrairaultzailea da” bezalako kontsignaduna) edo, ez hain *radical chic*, Travis Mathews-en *I want your love* laburmetraia nire ustez maitagarria (ik. www.xvideos.com/video1093542/i_want_your_love).

Umberto Ecoren ustez, film porno bat film, esan dezagun, konbentzional batetik bereizteko modurik zehatzena elipsiaren erabilera da. Beste nonbait azaldu dudanez eta lagunek maiz entzun behar izan didatenez, halako pelikuletan egin beharrekoa egin ondoren eta hurrengo *tour de force* iristen den bitartean, zuzendariak minutu batzuk bete behar ditu, betegarri huts, ikuslea indarberritu dadin, eta horretan ekoizleek ez omen dute gidoilaritan edo zuzendari artistikotan diru gehiegi xahutu nahi, badakitelako trantsizio funtzioa baino ez



JOSU SANTESTEBAN

duela betetzen, eta ikuslea zeren zain dagoen. Horregatik, protagonista eskalera bat igotzen agertzen da, lehen solairutik atikoraino. Hain zuzen ere, beste filmetan (salbuespen iraniarrak salbuespen) elipsian emango luketena.

Elipsi gabezi honek arazotsu bihurtzen du, ezinezko ez bada, pornografiaren arte izaera. Ez dago guk bete beharreko hutsunerik. Bizitzaren ekintza guztien atzean dagoen motibazio sentsuala sublimatu ordez, artelan guztiak modu inplizitu edo esplizituagoan badakizue, kontzeptu horiek ere ohi dutenez, bestelako fikzioen barne mekanismoa, lehen eragilea, desestaltzen digute. Alde horretatik, artea deitzen ahal bazaio, arte tekniko bat da, ez istorio ez interpretaziorik (nahiz eta, hori ezin baita ukatu, akto-reak, batez ere hitz egiteari uzten diotenean, beren pertsonaietan guztiz sartzen diren, eta, gehiengotan, baita ondoko pertsonaien barruan ere), baina, hala ere, ikusleak astintzeko eta eragiteko ahalmen handikoa, hala epe laburrean, nola

seguruenik garrantzitsuago luzean. Eleberri erromantikoek maitasuna erakutsi ziguten (cf. *Madame Bovary*) eta zinema ez pornografikoak (nahasgarriki, “zinema” izenarekin ere ezaguna) muxu nola eman erakutsi zigen XX. mende hasieran. Pornoak, inolako zalantzarik gabe, larrua jotzearen koreografia irakatsi digu, imintzioak, hitzak eta guzti.

Lagun batek, goi arnasadun gai batek solasera ekarrita, hala bota zuen: “Ohean, atzetik hartzen duenak maitasuna egiten du (sic) eta ematen duenak bere burua aktore pornotzat dauka”. Septimioren esaldi hari oihartzun eginez: “Idazten duenak maitasuna egiten du (sic), irakurtzen duenak atzetik hartzen du”. Beharbada, oheetan burutzen dugu beste inon ezinezkoa den arte pornografikoa. Argiak, kamera, ekin! ■

«
‘Ohean, atzetik hartzen duenak maitasuna egiten du (sic) eta ematen duenak bere burua aktore pornotzat dauka’. Septimioren esaldi hari oihartzun eginez: ‘Idazten duenak maitasuna egiten du (sic), irakurtzen duenak atzetik hartzen du’
»



irudia:
Antton Olariaga